

23.korrika



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



23. KORRIKA kanta kalean da HARRO HERRI izenburuean

Maite Arroitauregi, “Mursego”, musikariaren gidaritzapean sorturiko kanta aurkeztu dute Ane Elordi KORRIKako arduradunak eta Arroitauregik berak Eibarko Juan Bautista Gisasola musika-eskolan. Horrez gain, bideoklipa ere plazaratzeko baliatu dute agerraldia.

23. KORRIKA kanta eta bideoklipa aurkeztu dituzte Maite Arroitauregi musikariak eta Ane Elordi KORRIKA arduradunak gaur goizean, Eibarko Juan Gisasola musika-eskolan. Berak egindako lanen artean ezberdina egin zaiola adierazi du Arroitauregik, gutxi izaten baitira enkarguz egindako lanak: “Horrek geure buruari muga batzuk jartzera eraman gintuen, baina horrelako kantuekin egon ohi diren inertzia edo ohiturak kolokan jartzera: Korrika egiteko ez dagoela modu bakar bat, ez dagoela kanta bakar bat, bideak badituela gorabeherak eta bihurguneak.” Horrez gain, nabarmendu beharra dago pertsona askok osatutako lantalde batek sortu duela kanta.

Kantuak 6-7 zati ezberdin ditu; kantuaren barruan 3 kanta ezberdin, eta minisinfonia moduko zerbait oharkabeen. Kantu berritzailea denik ezin uka: “Atea zabaldu diegu azelerandoei, disonantziei, kaos modukoei, keinuei... Eta hainbat kantariren artean abestua egon arren, apenas inor ez nabarmentzeari, masa bat irudikatzeari”, azaldu du Arroitauregik.

Pop-barrokoa

Prozesu luzea izan den arren, gozatu egin dutela gaineratu du musikariak:

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus

23.korrika



Irundik Baionarat

2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



“Letratik abiatu ginen kantu pop bat egiteko, eta behin hezurdura eta melodia nagusia argi samar genituela hasi ginen konponketak proposatzen eta jolasten, askotariko ideiak botatzen eta eztabaidatzen, ados egon garen arte % 100ean”. Berrehunka pista zirriboratu eta milaka aldiz entzun eta gero, emaitza “pop-barroko kantu bat” izan da. Harrerari dagokionez, kontuan izan dute horrelako abesti bat publiko zabalari zuzenduta dagoela, eta berdin balio behar duela umek abestu eta dantzatzeko, lagunarteko festarako, zein errepidean denok bat eginda oihukatzeke.

Bideoklipa

Ane Elordi Alburquerquek azaldu legez, bideoa Amaia Badiola Elgezabalek egin du eta, eta, batez ere, aurreko edizioetako artxiboko irudiz osatuta dago: “23 ediziok eta 43 urtek askotarako ematen dute; besteak beste, ikusteko zer nabarmenak diren KORRIKAn mota guztietako bilakaerak: gizartea, aldarrikapenak, estetika, komunikatzeko erak... baita gauza horiek guztiak jasotzeko teknikak ere”. Izan ere, denboraren aurrera-egite horrek euskararen erresistentzia ere irudikatzen du. Egileak diotenari jarraikiz, “Bideoklipa batzuetan da nostalgikoa, beste batzuetan polita, eta “punkia” ere izan daiteke”.

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus